

UDABERRIKO KONTZERTU ATSEGINA

Ekainaren lehenean, eguraldi ederra egin zuelarik, H.M. Txokoko terrazan Udaberriko Kontzertua ospatu genuen. Inguratu zirenek aukera paregabea eduki zuten musika saio ederra entzuteko. Oiartzungo "Arozenatarrak" txistulari laukoteak eta Errioxako "Orquestina Turruntés" taldeak ireki zuten modu atsegina eta aberasgarrian gure herri musika kontzertu ziklo berria. Kontzertu ondoren musikariak eta H.M. Txokoko lan-



Orquestina Turruntésen emanaldia

guntzaileak Auzokalte elkartearen afarian elkartu ziren. Afalostean ez ziren musika eta dantza falta izan.

Zorionak, ERESBIL!

ERESBILek (Euskal Konpositoreen Bildumak) egoitza berria du dagoeneko Erreterian. Zorte ona opa diegu, gurearen hain hurbil dagoen bere ibilbidean.

Kontzertu ondoren afaria

Beste atalean irakurri duzunez datorren uztailaren 6an "udako kontzertua" izango dugu. Eta zer egokiago, musika entzun ondoren musikariek afaltzea baino? Hori bururatu zaigu eta aukera eman nahi dizuegu. Horretarako afaria antolatu dugu *Auzokalte* elkartearen **Herri Musikarien Txokoaren** ondoan- eta nahikoa izango da uztailaren 3a baino lehenago gurekin harremanetan jartzen bazara. Ah, prezioa 12 € bakarrik.

Bisita bereziak

Bisiten kopurua garrantzitsua bada ere -dagoeneko 1.100dik gora bisitari izan dugu gurekin-badira bisita batzuk bereziki aipagarriak guretzat, herri musikaren lekukoa belaunaldi berrioi pasa digutenekin lotuta daudelako. Horregatik dira bereziak guretzat Zuaznabartar txalapartarien bisitak, edo Bilbao eta Gorrotxategitar albokari senideenak...

MARTXA ONEAN JARRAITZEN DU BISITARI KOPURUAK

Azken bi hilabete hauen bisiten datuak ondorengoak dira:

Maiatza: Bisitarien kopurua: 278. Antolatutako taldeak: 17

Ekaina (21a arte): Bisitarien kopurua: 208. Antolatutako taldeak: 10

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 / 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

H.M.

BERRIAK

2002ko ekaina

2. zkia

Gure hurrengo egitasmoa: HERRI MUSIKA ESKOLA

Herri Musikaren Txokoa zentroak bete behar dituen funtzioen artean herri musika bultzatzea delarik, hori bete ahal izateko helburuetako bat Herri Musika Eskola bat sortzea du.

Herri Musika Eskola honetan soinu-tresnak sakonki ezagutzen eta jotzen erakutsiko litzateke, hauen musika estilo eta joera ezberdinak eta herri dantzak.

Herri Musikaren Txokoa sortu aurretik Oiartzunen arlo honetako eskola eta elkarte ezberdinek funtzionatzen dute:

Txistua: Musika Eskola.

Trikitixa eta Panderoa:

Dantza Eskola edo Taldeak.

1999-2000 ikasturtean, Herri Musikaren Txokoak bultzaturik Oiartzungo txalaparta taldearekin batera Txalaparta Eskola martxan jarri genuen. Hasiera honetan, Txalaparta Eskola Oiartzungo Udalak babesten dituen helduentzako ekintzetako egitarauan kokatzen da. Ekainean bukatu dute hirugarren kurtsoa, hasieratik irakaslea izan den Felipe Ugarterekin. Txalaparta irakasle hau Hernaniko Txalaparta Eskolatik etorri zaigu. Hamar ikasle, hiru maila eta talde-



Bisitan etorri ziren Haurtzaro ikastolakoak

tan banaturik, klaseak asteartero eta Udalak utzitako Altxibarko Eskoletako lokaletan eman izan dira. Hurrengo ikasturtetarako txalapartaz gain alboka klaseak ere antolatu nahi ditugu. Aurreko ikasturtean alboka eskaini genuen baina bi eskaera bakarrik izan genuenez ez genuen antolatu eta hurrengorako antolatzeko behar diren gutxieneko lau eskaera izango direlakoan gaude; horrela Oiartzunen txalaparta eta alboka erakutsiko lirateke.

Bestalde eta gai honekin zerikusi duen beste gauza garrantzitsua: Oiartzunen ari diren eskola edo taldeen koordinaketa. Guzti hori koordinatu eta modu orokorrean antolatu beharko genukeela iruditzen zaigu. Denon artean Oiartzungo Herri Musika Eskola osatu dezakegu. Baina hau hurrengo baterako utziko dugu.

Kontzertuak Txokoan

Uztailaren 6an udako kontzertua burutuko dugu

Bigarren kontzertu honetarako Euskal herri musika aldetik "Lizarrako Gaiteroak" talde ospetsua eta kanpokoaren partetik Kantabriako arrabita-jole trebea den Esteban Bolado aukeratu ditugu. Lizarrakoek beren herriko festetako egun bateko funtzio ezberdinetako doinuak joko dituzte eta kantabriarrak Virginia Arce eta Beatriz García "pandereteras" direnen laguntzaz, arrabita eta panderoz ematen diren kantaz osatutako errepertorioa eskeiniko digute.

Hona hemen parte hartzaileen eta kontzertu egitarauaren aurkezpena:

ESTEBAN BOLADO

Esteban Bolado rabel-jole eta egilea izateaz gain soinu-tresna hau erakusten du Torrelavega, Cabezón de la Sal eta Maliaño folklore eskoletan. Bere errepertorioan bi motatako aleak batzen ditu: alde batetik, Pedro Madrid rabel jole famatuarekin egindako ikasketei zor dakizkiokeen era tradizionalenekoak eta bestetik, elementu tradizionaletik abiatuta, modu berritzaileaz sortutakoak, beti ere "zaharra" eta "berria" direnak errespetatuz eta bereiztuz. Honek musika egiteko filosofia suposatzen du, non entzule eta emailea, beren une zehatzean kokatuz, gure gariari dagokion aniztasun musikalaren erakustaldi zintzoa eskeintzeko..... zenbait tokitan folklorea era bereziaz jorratu behar baita.

Beste eratan esanda, aurrera egiteko bidearen bilaketa izango zen hau, aintzinekoa non bukatzen den eta berria non hasten den jakinik: horrela lurraldearen zaporeaz emailearen barre-nekoa azaltzeko formula majikoa aurkitzen dugu.

Esteban Boladoren estiloa Polaciones aranari zor dio sorkuntza. Beste estiloa bait da "campurriano" izenekoa, Campoo aranekoa. Ahotsa, pandereeta eta panderoa dira rabelaren laguntzaileak eta jotzeko eran ale mota ezberdinak aurkitu ditzakegu.

Pandereterak:

Virginia Arce Gandara (16 urte)
Pielagosekoa eta Beatriz García Vacas (15 urte) Torrelavegakoa. Biak "Nuestra

Señora de Covadonga de Torrelavega" dantza taldekoak, "bailadoras y pandereteras" eta gaur egun Kantabriako "Los Trastolillos" gazte folk taldeko partaideak dira.

Egitaraua:

Jotas a lo pesado y a lo ligero

Pericotes

Romances

Tonadas

Solos de pandereteras

Rabel y voz

Rabel, pandero y pandereeta

Solos de rabel



GAITEROS DE ESTELLA-LIZARRAKO GAITEROAK

1981an sortu zen arren bere kide gehienek hirurogei hamarkadan hasita zeukaten norberaren ibilbide musikala.

Talde honek garatzen duen hedatze lanaren fruituak dira egindako grabazioak, bakarrik edo bestelako taldeekin elkarlanean. Era berean, dultzaina eta bere inguruari buruzko zenbait ikerlan burutu ditu, Nafarroako Gobernuak eta kultur aldzikari ezberdinek argitaratu dituztenak.

Berezkua zuen lur eremutik dultzaina desagertzeak sortutako kezka bultzatuta soinu-tresna hau erakusteko akademiak sortzeari ekiten dio taldeak eta horren emaitzak, Gipuzkoan, Errioxan eta -nola ez!- Nafarroa osoan sortutakoak.

Gaur egun, taldekideak dultzaina irakasleak dira Lizarrako "Julian Romano" Udal Musika Eskolan (1983tik) eta hiri honetako gaitero ofizialak 1989tik.

Halaber, Lizarrako Musika Banda sortu zenetik beraren bakarlariak dira. Talde instrumental honetan dultzaina txertatu dute XIX. mendearen erdi aldera Julian Romanok Lizarran ezarri zuen ohiturari jarraituz.

1982/83. inguruan, kalitatezko soinu-tresnak eduki beharrak eta Lizarrako egileen faltak artesautza arlo hori jorratzera behartzen dituzte. Horretarako kontuan hartu dituzte garai bateko dultzainarien lanmoldeak. Gaur egun, dultzainak, dultzainetarako pitak eta danborraz gain, soinu-tresna mota guztietarako mihiko bikoitzeko pitak lantzen dituzte, aintzinako soinu-tresnak barne, bajon edo txirimiaren kasuan bezala.

Lizarrako dultzainariek kontzertuak eskeintzen dituzte penintsula eta Europar zehar.



Egitaraua:

<i>Diana de caballería</i>	(Diana)	Demetrio Romano
<i>¡Vaya amanecer!</i>	(Diana)	Nicolás García
<i>Urriza y Napal</i>	(Pasacalles de gigantes)	J. C. Duñabeitia
<i>Primer kalejira</i>	(Pasacalles)	Rep. Gaiteros de Estella
<i>Jota vals de Estella</i>	(Vals)	Julián Romano
<i>El Pajarico</i>	(Vals)	Julián Romano
<i>A Navarra</i>	(Jota)	Apolinar Brull
<i>La del Pañuelo rojo</i>	(Zortziko)	Arrg. Alfonso Ugarte
<i>Jota</i>	(Jota)	Demetrio Romano
<i>Fandango</i>	(Fandango)	Bonifacio Lascurain
<i>Belviste</i>	(Arin arin)	P. H. Olazarán de Estella
<i>Baile de la Era de Estella</i>	(Danza)	Julián Romano
<i>Gaztedi Alai -1.967</i>	(Murga)	Manuel Turrillas

Lizarrako Gaiteroak-Gaiteros de Estella:

Salvador Martínez Garate; gaita 1ª
Juan Carlos Duñabeitia Cardiel; gaita 2ª
Gorka Sarasa Agirre; danborra

Lizarrako gaitero-dultzaineroek egindako grabazio eta argitalpenak:

LP "GAITEROS DE ESTELLA-LIZARRAKO GAITEROAK". 1.985. urtean

LP "TONADA GENERAL PARA DOS GAITAS". 1.987. urtean

LP "ESTELLA-LIZARRA, 1.090-1.990". 1.990 urtean (Lizarrako fueroaren 900 urtemugan).

CD "REGISTROS HISTORICOS I". 1.996. urtean Grabazio zaharren bilduma.

CD "BAILE DE LA ERA DE ESTELLA". 1.996. urtean (Nafarroako dantza ezagunenak ere datozelarik).

CD "REGISTROS HISTORICOS II". Año 1.998. Grabazio zaharren bilduma.

Elkarlanean egindako grabazioak ondoko taldeekin burutu dira: Donostiako Udal Txistu Taldea, Egan taldea, Lizarrako Udal Musika Banda, Enrike Zelaia, Donostiako Goi Mailako Ganbara Orkestra. "ESTELLA Y LA MÚSICA. Siglo XIX". Rosa Villafrancarekin elkarlanean argitaratutako liburua.